



GIDA, DESGAITUEK
EGUNEROKO BIZITZA
ARRUNTERAKO
ESKURA DITUZTEN
BALIABIDE
EKONOMIKOEI
BURUZKOA

I. LIBURUKIA: GIZARTE
SEGURANTZAREN
LEGERIAN JASOTAKO
PENTSIOAK ETA DIRU-
ESLEIPENAK



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

eginaren
eginez

Zer baliabide ekonomiko dituzte eskura desgaituek eguneroko bizitza arrunterako?

Baliabideak, edukiari dagokionez, askotarikoak dira, eta hainbat administrazioek ematen dituzte. Oro har, honela multzokatu ditzakegu:

- a) Gizarte Segurantzaren legerian jasotako pentsioak eta diru-esleipenak.
- b) Norbanakoaren autonomia eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta sustatzeko laguntzak.
- c) Eraikinak irisgarriago egiteko laguntzak.
- d) Beste banakako laguntza batzuk (garraiorako, gizarteratzeko eta abarrerako).

I. liburuki honetan, Gizarte Segurantzaren legerian (Araubide Orokorrean) jasotako pentsioak eta diru-esleipenak izango ditugu aztergai. Zehazki:

- Ezintasun iraunkorreko ekarpenezko pentsioa.
- Ekarpenezko ez den baliaezintasun-pentsioa.
- Desgaitu bat ardurapean izateagatik ematen den diru-esleipena.
- Haurrak izateagatik edo adoptatzeagatik ama desgaituei ematen zaien diru-esleipena.

Ezintasun iraunkorreko ekarpenezko pentsioa

1.- Kontzeptua: Prestazio ekonomiko horren helburua da soldata-edo lanbide-errenten galera konpentsatzea, baldin eta pertsona batek gaixotasun edo istripu baten ondorio den prozesu patologiko edo traumatiko bat badu eta horren eraginez lanerako gaitasun murriztua badu ustez behin betiko. Prestazio hori jasotzeko, ezinbestekoa da aurrez Gizarte Segurantzari kotizatzea.

2.- Onuradunak eta betebeharrak:

- a) Langileak ezintasun iraunkor aitortua izatea:
 - partziala ohiko lanbiderako;
 - erabatekoa ohiko lanbiderako;
 - absolutua lan orotarako;
 - edo "baliaezintasun handia": erabateko ezintasun iraunkorra duen gizabanakoa, galera anatomikoak edo funtzionalak direla-eta beste norbaiten laguntza behar duena bizitzako gauza oinarritzkoenak egiteko (jateko, janzteko, mugitzeko eta antzeko gauzak egiteko).
- b) Gizabanakoa izena emanda (edo antzeko egoera batean) ego-

tea Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean, eta legez ezarritako gutxieneko kotizazio-epea betetzea. Salbuespenak:

- Laneko edo bestelako istripu batek edo lanbide-gaixotasun batek eragin badu ezintasuna, ez da beharrezkoa izango aurrez kotizazio-epe jakin bat betetzea.
- Ezintasun iraunkor absolutua edo "baliaezintasun handia" dutenek ez dute ezinbestean izena emanda edo antzeko egoera batean egon beharko Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean istripua edo gaixotasuna gertatzen denean, baldin eta gutxienez 15 urtez kotizatu badute.

(Gizarte Segurantzaren izena ematean interesdunak dituen urritasun anatomikoek edo funtzionalek ez dute eragotziko ezintasun iraunkorra aitortzea, baldin eta interesduna desgaitua bada eta, izena eman ostean, urritasun horiek okerragotu egin badira eta, beren kabuz edo beste lesio edo patologia batzuk direla tarteko, gutxitu edo hutseratu egin badute interesdunak izena ematean zuen lanerako gaitasuna).

c) Ez izatea erretiro-pentsioa jasotzeko eskubidea (Onuradunak erretiro arrunta hartzeko gutxieneko adina betetzean, "erretiro-pentsio" esango zaio; baldintzak, ordea, ez dira aldatuko).

3.- Langileak jasoko duen pensioa:

- Ezintasun iraunkor partziala: oroharreko kalte-ordaina;
- ezintasun iraunkor erabatekoa eta absolutua: bizi arteko pensioa;
- "baliaezintasun handia": mendetasunaren arretarako pensioaren osagarri bat.

4.- Eskabidea eta dokumentazioa: Gizarte Segurantzaren edozein arreta- eta informazio-zentrotan eska daiteke. Eskabide ofiziala bete behar da, eta dokumentu hauek aurkeztu:

- NAN.
- Eskatzaileak laneko istripua edo gaixotasuna izan badu, sendagilearen txostena, hori frogatzen duena, eta enpresako ziurtagiria, aurreko urtean jasotako benetako soldaten berri ematen duena.
- Historial klinikoa edo mediku-ikuskaritzaren txostena, Osakidetza egina, baldin eta eskatzaileak bere esku badu.

5.- Bateragarritasunak eta bateraezintasunak:

- Ezintasun iraunkor partzialagatiko pensioa: edozein lan-jarduera egin dezake, besteren kontura nahiz bere kontura, eta lehengo lana egiten jarrai dezake.
- Erabateko ezintasun iraunkorragatiko pensioa: bateragarria da langileak enpresa berean edo beste enpresa batean jasotzen duen soldatarekin, baldin eta lan horren egitekoak bat ez badatoz erabateko ezintasun iraunkorra eragin zuten egitekoekin.

- Ezintasun absolutuagatiko edo baliaezintasun handiagatiko pentsioa: gizabanakoak aukera du ekintzak egiteko (irabazizkoak edo irabazi-asmorik gabekoak), baldin eta ekintza horiek gizabanakoaren lan-gaitasuna aldatzen ez badute. Mendetasunagatiko osagarria bateragarria da 39/2006 Legean jasotako prestazio ekonomikoekin, mendetasunari laguntzea xede duten horiexekin.

Ekarpenezko ez den baliaezintasun-pentsioa

1.- Kontzeptua: Prestazio ekonomiko horrek ezintasunen bat izan eta horren ondorioz beharrean dagoen herritar orori bermatzen dio laguntza ekonomikoa, doako laguntza medikoa eta farmazeutikoa eta gizarte-zerbitzu osagarriak, nahiz eta kotizatu ez edo kotizaziopeko pentsioa jasotzeko eskubidea izateko behar beste ez kotizatu. Prestazio hori jasotzeko, ez da beharrezkoa aurrez Gizarte Segurantzari kotizatzea.

(Desgaituen Eskubideei buruzko Lege Orokorren Testu Bateginean jasotakoaren arabera, lan-jarduerarik egiten ez dutela-eta Gizarte Segurantzaren arloan sartuta ez dauden desgaituek eskubidea dute laguntza sanitarioa eta farmazeutikoa jasotzeko, bai eta lanerako berreskuratzeko ere).

2.- Onuradunak eta betebeharrak:

- 18 urtetik gorakoa izatea eta ez izatea erretiro arrunta hartzeko gutxienerako adina (Onuradunak erretiro arrunta hartzeko adina betetzean, "erretiro-pentsio" esango zaio; baldintzak, ordea, ez dira aldatuko).
- Eskaera aurkezteko unean eta eskaera aurkeztu aurreko bost urteetan, gutxienez, Espainian bizi izatea (horietatik bik eskaera-egunaren aurrekoak eta elkarren segidakoak izan behar dute) eta Araban erroldatuta egotea.
- % 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortua izatea.
- Ez izatea behar beste diru-sarrerera (urteko diru-sarrerak legez ezarritako mugatik behera egotea).

3.- Zer pentsio jasoko duen onuradunak: bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren eta kideen arabera erabakiko da pentsioaren zenbatekoa. Onuradunak mendetasunaren arretarako osagarri bat jasoko du, baldin eta egiaztatzen badu % 75eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duela eta beste norbaiten laguntza behar duela bizitzako gauza oinarrizkoenak egiteko.

4.- Eskabidea eta dokumentazioa: Gizarte Ongizateko Foru Institutuan edo udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuetan eskatu behar da. Eskabide ofiziala bete behar da, eta dokumentu hauek aurkeztu: NAN, errolda-ziurtagiria, bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren eta desgaitasun-mailaren (eta, hala badagokio, mendetasun-mailaren) berri jasotzen duten dokumentuak.

5.- Bateragarritasunak eta bateraezintasunak:

- Eskatzaileak aukera du lan-jarduerak egiteko (irabazizkoak edo irabazi-asmorik gabekoak), baldin eta ekintza horiek eskatzailearen lan-gaitasuna aldatzen ez badute (jasotzen dituen diru-sarrerak lege ezarritako mugak gaindituz gero, pentsioa gutxitu da).
- Eskatzaileak ezin ditu jaso gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko diru-laguntzak, ez eta hirugarrenen laguntza jasotzeko diru-laguntza ere (Desgaituen Eskubideei buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginaren xedapen iragankor bakarrean aipatzen da azken diru-laguntza hori). Eskatzailearen gurasoek ezin dute diru-esleipenik jaso beren ardurapean seme edo alaba desgaitu bat izateagatik.

Desgaitu bat ardurapean izateagatik ematen den diru-esleipena

1.- Kontzeptua: Onuradunari aitortzen zaion diru-esleipena, bere ardurapean duen seme edo alaba bakoitzagatik, 18 urtetik beherrakoa edo gorakoa dena eta % 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duena.

2.- Onuradunak eta betebeharrak:

- % 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duen seme bat edo alaba bat izatea beren ardurapean (orobat izango dira diru-esleipenaren onuradun amagabeak eta aitagabeak, % 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila dutenak, desgaitasuna dela-eta beren gurasoei laguntza bailegokieke).
- Gurasoak eta semea edo alaba Espainian bizitzea.
- Ardurapeko semea edo alaba desgaitua bada, ez da eskatzen baliabide ekonomikoek muga jakin bat izatea.
- Gurasoek ez izatea antzeko prestazioak jasotzeko eskubidea gizarte-babeserako beste araubide publiko batean. Gurasoetako batek soilik jaso ahal izango du pentsioa, betebeharrak biek betetzen badituzte ere.

3.- Zerpentsiojasokoduen onuradunak: Semearen edo alabaren desgaitasun-mailaren araberrakoa da zenbatekoa. Semeak edo alabak % 75eko edo gehiagoko desgaitasun-maila badu eta beste norbaiten laguntza behar badu bizitzako gauza oinarritzkoenak egiteko, pentsioaren zenbatekoa handiagoo izango da (mendetasunagatikoo osagarria).

4.- Eskabidea eta dokumentazioa: Gizarte Segurantzaren arreta eta informazio-zentroetan eska daiteke. Eskabide ofiziala bete behar da, eta dokumentu hauek aurkeztu: NAN, gurasoen eta semearen edo alabaren errolda-ziurtagiria, familia-liburua edo

jaiotza-agirien ziurtagiria, desgaitasun-mailaren ziurtagiria (eta, hala badagokio, mendetasun-mailarena) edo desgaitasun- edo mendetasun-maila aitortzeko eskatu izanaren ziurtagiria.

5.- Bateragarritasunak eta bateraezintasunak:

- Semeak edo alabak lan egin dezake, besteren kontura edo bere kontura, baldin eta prestazioaren onuradunarekin bizi bada eta semearen edo alabaren laneko etekinek ez badute gainditzen lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100.
- Onuradunak ezin ditu jaso gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko diru-laguntzak, ez eta hirugarrenen laguntza jasotzeko diru-laguntza ere (Desgaituen Eskubideei buruzko Lege Orokorren Testu Bateginaren xedapen iragankor bakarrean aipatzen da azken diru-laguntza hori). Semeak edo alabak ezin du jaso ekarpenezko ez den baliaezintasun-edo erretiro-pentsiorik, eta gurasoek ezin dute jaso gizarte-babeserako beste araubide batzuetako antzeko prestaziorik.
- Mendetasunagatiko osagarria bateragarria da 39/2006 Legean jasotako prestazio ekonomikoekin, mendetasunari laguntzea xede duten horiexekin.

Haurrak izateagatik edo adoptatzeagatik ama desgaituei ematen zaien diru-esleipena

1.- Kontzeptua: % 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duten amei haur bat izateagatik edo adoptatzeagatik aitortzen zaien prestazio ekonomikoa.

2.- Onuradunak eta betebeharrak:

- % 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duen ama batek haur bat izatea edo adoptatzea.
- Gurasoak eta semea edo alaba Espainian bizitzea.
- Gurasoen diru-sarrerek ez gainditzea legez ezarritako muga.
- Gurasoek ez izatea eskubidea antzeko prestazioak jasotzeko gizarte-babeserako beste araubide publiko batean. Gurasoetako batek soilik jaso ahal izango du pentsioa, betebeharrak biek betetzen badituzte ere.

3.- Zer pentsio jasoko duen onuradunak: Oroharreko kalte-ordaina. Ordainketa bakar batean emango da.

4.- Eskabidea eta dokumentazioa: Gizarte Segurantzaren arreta-eta informazio-zentroetan eska daiteke. Eskabide ofiziala bete behar da, eta dokumentu hauek aurkeztu: NAN, gurasoen eta semearen edo alabaren errolda-ziurtagiria, familia-liburua edo jaiotza-agirien ziurtagiria, desgaitasun-mailaren ziurtagiria eta diru-sareren ziurtagiriak.

5.- Bateragarritasunak eta bateraezintasunak:

- Gurasoek ezin dute jaso gizarte-babeserako beste araubide batzuetako antzeko prestaziorik.
- Zilegi da seme edo alaba desgaitu bat ardurapean izateagatik ematen den diru-esleipena jasotzea, bai eta tokiko eta erki-degoko administrazioek ematen dituzten antzeko diru-laguntzak jasotzea ere.

Kontuan hartu beharreko beste gai batzuk

a) Langile desgaitu jakin batzuei erretiro-pentsioa jasotzeko gutxieneko adina gutxituko zaie (baldin eta horretarako beharrezkoak diren gainerako betebeharrak betetzen badituzte):

- Besteren kontura lan egiten duten langileei dagokienez, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean (eta araubide berezi batzuetan) sartuta badaude eta % 65eko edo gehiagoko desgaitasunarekin lan egiten dutela frogatzen badute, haien erretiratzeko gutxieneko adina gutxitu egingo da, eragiketa honen bidez lortzen den denbora: lanean benetan egindako denbora bider arauz ezarritako koefiziente batzuk (koefizientea handiagoa izango da, baldin eta norbaiten laguntza behar badute bizitzako gauza oinarritzak egiteko). Adina gutxitzeko koefizienteak aplikatzean lortzen den emaitza gorabehera, interesdunek ezingo dute erretiro-pentsioa jaso 52 urte izan aurretik.
- Besteren kontura edo beren kontura lan egin duten langileei dagokienez, Gizarte Segurantzako edozein araubidetan sartuta badaude eta frogatzen badute erretiro-pentsioa jasotzeko ezarritako gutxieneko kotizazio-epean benetan lan egin dutela (gutxienez) eta epe horretan guztian, arauz ezarritakoaren arabera, % 45eko edo gehiagoko desgaitasuna izan dutela, haien erretiratzeko gutxieneko adina 56 urte izango da. Erretiro aurreratuaren modalitate hori jaso ahal izateko, langileak ezinbestean egon beharko du izena emanda (edo antzeko egoera batean) Gizarte Segurantzaren.

Bi modalitate horietan, langilearen erretiro-adina zenbat denboraz gutxitzen den ere, denbora-tarte hori kotizatutzat hartuko da, erretiroaren zenbatekoa kalkulatzeko zer ehuneko aplikatu behar den kalkulatzeko. Erretiro aurreratuaren bi modalitate horietako betebeharrak betetzen dituzten langileek aukera izango dute onuragarri zaien modalitatea hautatzeko.

b) Laneratzeko zailtasun bereziak dituzten desgaituek (arauz ezartzen da nor dauden egoera horretan) hitzarmen berezi bat izenpetu ahalko dute Gizarte Segurantzarekin, erretiroko, heriotzako eta biziraupeneko prestazioak izateko. (Horretarako, besteak beste, betebeharrak bete beharko dituzte: lan bila dauden

langabe gisa izena emanda egon beharko dute enplegu-zerbitzu publikoetan, hitzarmen berezia izenpetu aurreko 6 hilabeteetan, gutxienez; ezingo dute egon izena emanda edo antzeko egoera batean Gizarte Segurantzaren ezein araubidetan, ez eta gizarte-babeserako ezein araubide publikotan ere; eta ezingo dute jaso —ekarpenezko edo ekarpenezko ez den— erretiro-pentsiorik, ez eta ezintasun iraunkorreko —ekarpenezko— pensiorik ere, eta ezingo dute pensio baliokiderik jaso gizarte babeserako beste edozein araubide publikotan).

LOTUTAKO LEGEDIA

- Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bategina, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Martxoaren 15eko 357/199 Errege Dekretua, 26/1990 Legea garatzen duena ekarpenezko ez diren pensioen arloan.
- Uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua, Eusko Jaurlaritzarena, gizarte-zerbitzuen alorreko egitekoak zehazteko dena.
- Abenduaren 5eko 1539/2003 Errege Dekretua, desgaitasun-maila handia egiaztatzen duten langileen alde erretiro adina murrizteko koefizienteak ezartzen dituena.
- Abenduaren 4ko 1851/2009 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzaren 161 bis artikulua garatzen duena % 45eko edo gehiagoko desgaitasuna duten langileen erretiroa aurreratzeari dagokionez.
- Martxoaren 1eko 156/2013 Errege Dekretua, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten desgaituen hitzarmen berezia arautzen duena.

ARGITALPEN HAU 2013KO ABENDUAN EDITATU ZEN, ETA DATA HORRETAN INDARREAN ZEGOEN ARAU-DIAN OINARRITZEN DA EDUKIA.